

Donostia, 2022ko ekainaren 3a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

GIPUZKOA BABESTU 20_30 PLAN ESTRATEGIKOA. MOZIO ARRUNTA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu behar dio UDALBATZARI, Gipuzkoa Babestu 20_30 Plan Estrategikoa dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko asteartean sua izan zen Irungo Casto kalean. Hamaika pertsona artatu behar izan zituzten, kea irentsi zutela eta. Batzuek mediku-zerbitzuak behar izan zituzten, eta bi ospitalean daude une honetan.

Bidasoa Parkeko suhiltzaileek ohar baten bidez salatu dute Urola Kostako zerbitzura jo behar izan zutela sua itzaltzen laguntzeko eskatzera; Zarautza, alegia. Irungo suhiltzaileek gogorarazi dute aspalditik ari direla salatzen hitzarmen bat izan behar litzatekeela Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren artean, Donostiako Parkeak automatiko laguntzeko Irungoari Oarso-Bidasoa eskualdean gertatzen diren larrialdietan.

Esan dezagun Donostiako Suhiltzaileen Parkeak Donostialdean bakarrik egiten dituela zerbitzuak, eta, baliabiderik ez denez, ezin diola Oarso-Bidasoa inguruari kasu egin. Gipuzkoako Foru Aldundiko Prebentzio eta Salbamendu Zerbitzuaren eta Donostiako Suhiltzaile Parkearen artean lerro operatiborik ez dagoelako gertatzen da hori.

Koordinazio-falta horren ondorioz, babesik gabe geratzen dira toki batzuk, eta ez dago herritarren segurtasuna bermatzerik.

Larrialdietan arin eta herritarren premietara egokituta kasu egitea bermatzeko, diagnostikoa eta lankidetzan lan bat egin ziren. Donostiako Udaleko suhiltzaile-zerbitzuaren inplikazioa izan zen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko suhiltzaile-zerbitzuko teknikariek egin zituzten. Haren ondorioz, Gipuzkoa Babestu 20_30 Plana egin zen, Batzar Nagusiei aurkeztu eta aurreko legegintzaldian

onartu zen. Plan horrek larrialdietako benetako beharren arabera bateratze operatiboa aurreikusten du, Gipuzkoan ikuspegi orokorra aplikatu ahal izateko, herritarrei kasu egiteko orduan gaitasun eta kalitate handiagoa izateko, erantzun-denbora laburrena lehenetsiz. Horretarako, bi suhiltzaile-parkeen zerbitzuak bateratu egin behar dira operatiboki.

Hori dela eta, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak **Gipuzkoa**ko Foru Aldundiari eskatzen dio abian jartzeko **Gipuzkoa Babestu 20_30** Suhiltzaile Zerbitzuaren Plan Estrategikoa.

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Elkarrekin Donostiaren bozeramailea